

Bere burua postaz bidali zuen esklaboa

LIBRARY OF US CONGRESS



Henry Box Brownen pizkundera Filadelfian, Samuel Rowseren litografia, 1850ean argitaratua.

RICHMOND (VIRGINIA, AEB), 1830. Henry Brown izeneko 15 urteko esklaboa tabako sail batean lan egin hasi zen. Egun batez Nancy ezagutu zuen, alboko sailean lan egiten zuen beste esklabo bat. Ezkongaialdi laburraren ondoren eta, jakina, bi jabeen baimena lortuta, elkarrekin ezkondu ziren. 1848rako bikoteak hiru seme-alaba zituen, eta laugarrena bidean zen. Baina Nancy eta hiru haurrak esklabo salerosle bati saldu zizkion jabeak eta laurak Ipar Carolinara eraman zituzten. Galtzeko ezer ez zeukanez, Henry Brownnek kosta ahala kosta askatasuna lortuko zuela erabaki zuen orduan.

Eta horretarako plan bitxia bururatu zitzaion: bere burua postaz bidaliko zuen Filadelfiara. Bidalketaren abiapuntuan eta helmugan konplize bana behar zuen esklaboak. Richmonden Samuel Alexander Smith abolizionistarekin jarri zen harremanetan, askatasuna lortua zuen esklabo ohi baten bidez. Smithi 86 dolar eman zizkion, operazioaren gastu guztiak ordain zitzaion, eta Philadelphia Anti-Slavery Society elkartearekin hitz egiteko eskatu zion, kideetako batek bidalketa onar zezan.

1849ko martxoaren 23an, Henry Brown metro bat luze, metro erdi zabal eta ia metro bat altu zen kutxan sartu zen. Smith igorleak Adams Express konpainiaren bidez eta Filadelfiako elkarteko buru James Miller

McKim-en izenean bidali zuen pake-
tea. Barrutik oihal lodi batez forratuta zegoen kutxa, kolpeak leuntzeko, eta Brownnek galleta gutxi batzuk eta urontzi betea eraman zituen gurdi, tren eta lurruntzi bidezko 27 orduko bidaian. Martxoaren 25eko goizaldean, McKimek eta elkarteko beste zenbait kidek kutxa zabaltu zuten; Brown askeak esandako lehen hitzak “zer moduz zaudete, jaunak?” izan omen ziren.

Henry Box Brown esan zioten handik aurrera. Abolizionismoaren ikono bihurtu zen eta hitzaldiak ematen hasi zen batetik bestera. 1850ean *Fugitive Slave Act* (Esklabo Iheslarien Legea) delakoa onartu zutenean, Brownnek Londresera alde egin zuen, atzera Virginiako tabako sailera eramango zuten beldur. Ingateran, hasieran, jarduera abolizionistari eutsi bazion ere, handik urte batzuetara militantzia baztertu eta lan etekintsuagoetan hasi zen (hipnotizatzaile eta prestidigitadore jardun zuen). Berririo ezkondu zen emakume britainiar batekin; erabakia gogor kritikatu zuen hainbatek, Brownnek ez zuelako sekula ahalegirik egin bere familia topatzeko, guztien askatasuna erosteko adina diru aspaldi bildua zuen arren. Finean, besteei gustatu ala ez, Henry Brownnek nahi zuena egiteko askatasuna zuen. ■



Arrastoak Brontze Aroko garun egosiak aurkitu dituzte Turkian

SEYİTÖMER HÖYÜK (Turkia) Brontze Aroko aztarnategian hainbat eskeleto aurkitu dituzte, baita haiei dagozkien garun arrastoak ere. Aurkikuntza garrantzitsua da ehun bigunak kontserbatzea zaila delako. 4.000 urtetan datatu dituzte eta, hala, inoiz aurkitutako giza garun arrastorik zaharrenak dira. Lehen, 2.600 urtekoa zegoen zerrendaren buruan.

Adituen hipotesiaren arabera, garun horien jabeak eremu horretan ohikoak diren lurrikaren eraginez hil ziren eta, ondoren, sute bat izan zen; suak kobazulo barruko oxigenoa agortu omen zuen eta garunak su motelean egosi zituen. Lurzoruaren osaerak ere lagundu du; magnesioak, potasioak eta aluminioak garun arrastoei erreakzionatu zuten, organoa zeramika babiliz gogortuz.

Paleontologoentzat berri ona izan arren, aurkikuntzak bereziki neurozientziari egin diezaioke ekarpen nabarmena. Banako haiek izandako garuneko patologia (hemorragiak, tumoreak, gaixotasun neurodegeneratiboak...) aztertzeak gaixotasun horien jatorria, bilakaera eta ezaugarriak hobeto ulertzen lagun dezake. ■



ALTINOZ

Seyitömer Höyükeko garun egosietako bat.